



Begarako
Udala

LANKIDETZA-HITZARMENA, ENPRESARE ELKARTEAREN ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKOA

Begaran, 2025eko urtarrilaren 29an.

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi Bergarako Udaleko alkatea eta erakunde horren ordezkaria dena, M^a Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Alain Vivas Martinez de Lahidalga, G06973457 IFZ duen ENPRESARE elkartearen lehendakaria, elkartearen izenean.

Azken honek zinpean Alkatearen aurrean aitortu du ez bera eta ez berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako debeku-kasuetan dirulaguntzak jasotzeko; eta ondoren elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmena aitortu diote eta honako hau

ADIERAZI DUTE:

- 1.- ENPRESARE elkarte irabazteko asmorik gabeko elkarte da.
- 2.- Elkartearen helburua da estatutuei jarraituz, besteak beste, Bergara eta inguruko industria ehuna sustatzea eta babestea, eta horretarako, elkartearen dauden enpresak elkar ezagutzea sustatuko duten ekitaldiak antolatzea elkarren konfiantza sustatuz, banakako eta taldeko proiektuak abian jartzeko.
- 3.- ENPRESARE elkarteak, 2025ean esku artean duen proiektua garatzen jarraitzeko asmoa azaldu du 2024ko abenduaren 18an eta proiektu hori burutzen jarraitzeko dirulaguntza eskatu du, adierazita aurrekontua 47.700 eurokoa dela.
- 4.- ENPRESARE elkarteak 2023 – 2026 Plan Estrategikoa abian du, ondorengo ardatz estrategikoekin:
 - Enpresa gehiago eta enpresari gehiago.
 - Enpresen lehiakortasuna hobetzea.
 - Elkar ezagutza eta lankidetzaren bultzatu.
 - Bergara erakargarri bihurtu enpresak eta langileak bertan finkatzeko.



Aldi berean, enpresa berrien kaptazio lana egiten ari da eten gabe eta gaur egun 25 enpresek osatzen dute.

Azken urtean egindako lanaren balorazioa positiboa izan da, eta ekimenaren jarraipenak garrantzi handia duela baloratu da enpresa partaide guztien aldetik, eta baita ENPRESARE Zuzendaritza Komitearen aldetik ere, Bergarako Udala komite horretako partaide izanik.

ENPRESARE elkarteak proiektua kudeatzen jarraitzeko aurkeztutako proposamena begi onez ikusi dute elkarteko Zuzendaritza komiteak: Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroa, Grupo TTT SA, Lazpiur SA, Tornilleria Segur SA, Zerbimek SL, Embalan3 SI, Gehiber Machined Components SAL, Debagoieneko Garapen Agentzia eta Bergarako Udala, eta baita bazkideek ere.

4.-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak 22.2 artikuluan ezartzen du zuzenean eman ahalko direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, dirulaguntza horien hitzarmenetan eta araudi erregulatzaillean jasotako baldintzen arabera, eta 28 artikuluan ezartzen du hitzarmenak ohiko tresna izango direla dirulaguntza horiek bideratzeko.

Halaber, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduak 66 artikuluan aurreikusteen du horrelako kasuetan emakidaren egintzak edo hitzarmenak emakidaren oinarri arautzaile-izaera izango duela Dirulaguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioetarako, eta, berorren edukia zehazten duela.

Azkenik Bergarako udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak ere gauza bera adierazten du 20. artikuluan eta zehaztu hitzarmenak gutxienez jaso beharko lukeena.

5.- Udalak indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan sartuta dauka ENPRESARE elkartearen aldeko dirulaguntza. Halaber, 2025eko aurrekontuan 30.000 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusita egonda, 2025eko urtarrilaren 28an emandako Dekretu baten bitartez erabaki da 30.000 euroko dirulaguntza ematea.

6.- Hitzarmen honen helburua dela dirulaguntza hori elkarteari bideratzea eta onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak zehaztea, udalaren betebeharrekin batera.


Hala, bada, adierazitako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: ENPRESARE elkarteak 2025erako aurkeztutako proiektua burutzeko konpromisoa hartzen du 2025eko abenduaren 31ra arte.

Proiektu horren eginbehar nagusiak honako hauek izango dira:

- Enpresekin ekimenak bideratzen jarraitu.
- Gai desberdinetako jardunaldiak eskaini.





Begarako
Udala

- Arlokako mahaiak lantzen jarraitu.
- Ferietara proiektua landu.
- Enpresa bazkide kopurua gehitu.
- Enpresen partaidetza eta konpromisoa sustatu.
- Komunikazio plana zehaztu eta ezarri.
- Baliabide teknikotan prestakuntza jaso.
- Ordezkaritza-lana Sare eta Agenteen artean.
- Beste erakunde eta Agenteekin erlazionatu eta lankidetzat sustatu.

Proiektuari dagokienean, honako konpromiso hauek hartzen ditu elkarteak:

- Proiektuaren fase bakoitzaren jarraipena, prozesuaren azalpena jasoko duen txostena hilerokotik aurkeztea Bergarako Udalari.
- Proiektu honen inguruan publizitaterik egingo balitz, Bergarako Udalaren laguntza duela adieraztea.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerakoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerakoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rola alderantziz utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan bultzatu eta gehituko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

BIGARRENA.- Bergarako Udalak 30.000 euroko dirulaguntza izenduna emateko konpromisoa hartzen du.

Dirulaguntza hori hitzarmena sinatzen den hurrengo hilabetetik aurrera ordainduko da hilerokotik banatuta. Beraz, Udalak 30.000 euroak hilerokotik banatuta ordainduko dizkio. Hau da, 2.500 euro/hileko transferentzia eginda elkartearen kontura.

Ordainketa horiek aurrerakin gisa egiten dira eta 2025eko abenduaren 31a baino lehen proiektuaren memoria aurkeztu beharko du elkarteak, eta baita honako dokumentazio hau ere emandako dirulaguntzak justifikatzeko:

- Dirulaguntza jasotzeko eskaera-orka, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala, balego).
- Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia...).
- Fakturatutako –edo pareko dokumentuan jasotako– gastuaren kontzeptua.
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– zenbatekoa.
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– jaulkipen-data.
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– ordainketa-data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerranda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenaz).

e) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio).

f) Dirulaguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Bestalde, jakitun da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hau kudeatzeko ez dela beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango duela, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri (GSDO):
 - GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean egongo da 2025eko abenduaren 31ra arte.





Bergarako
Udala

LAUGARRENA.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza edo enpresen aportazioak ere jaso daitezke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko dira.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo dira izan inolaz ere gastua baino handiagoak.

BOSGARRENA.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta egoki bada baita kendu ere, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenaren bidez bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

ZAZPIGARRENA.- Bi aldeek konpromisoa hartzen dute proiektua gauzatzeko lanen zein bertan jasotzen diren informazio guztien konfidentziasuna gordetzeko; informazio hori ezin izango zaie hirugarren batzuei eman, bezeroak aurrez baimena ematen ez badu bederen. ENPRESARE elkarteak proiektua garatzean eskura dituen informazio guztien konfidentziasuna gordeko du.

ZORTZIGARRENA.- Ezin izango da aldaketarik egin aurkeztutako proiektuan, ez eta bertan aurreikusten den denbora baino gehiago erabili ere, aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu.

Aldaketarik eginez gero, udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango du, bai eta emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazi ere.

BEDERATZIGARRENA. - Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko Dirulaguntzen Ordenantza orokorra eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua.

HAMARGARRENA.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan hartutako betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hitzarmena hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan, eta nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dut.



Izpta.: Gorka Artola Alberdi
Bergarako Alkatea

Izpta.: Alain Vivas Martinez de Lahidalga
Enpresare elkarteko Lehendakaria



Izpta.: M^a Concepcion Ugalde
Idazkaria